OÑATI
dabilen herria

## ALKATE DEKRETUA

**Nik, Izaro Elorza Arreguik, Oñatiko alkatea naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz, ondorengoa agintzea erabaki dut:**

**<u>Putzu septikoak garbitzeko eta instalatzeko 2024ko dirulaguntza deialdiaren ebazpen proposamena (1129/esp) (2024ZDKO0032)</u>**

**Xedea:**

Putzu septikoak garbitzeko eta instalatzeko dirulaguntzak emateko deialdiaren baitan jaso diren eskaerak aztertu eta dagokion laguntza proposamena egitea.

**Araudi aplikagarria:**

2024ko otsailaren 29an Udal Osoko Bilkurak egindako bileran, Landa Garapen Departamenduak kudeatzen dituen programaren kontura emango diren diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta 2024ko deialdia onartu zituen (2024/03/18ko GAOn). Onartutako laguntza lerro horien artean, putzu septikoak garbitzeko eta instalatzeko diru-laguntzak emateko oinarri-arau espezifikoak daude.

**Jaso diren eskaerak:**

Deialdiak xedatutako epe-mugaren baitan (abenduak 31) honako eskaerak jaso dira:

| Sarrera zkia | Eskatzailea | Baserria/ Helbidea | Deskribapena | Eskatutako laguntza €-tan BG |
|---|---|---|---|---|
| 4428 | Iñigo Urkia Odriozola | Sakristauena, Araotz auzoa 7 | Baserrian putzu septikoa jartzeko lanak | 9.086,47 € |
| 5950+ 5947 | Joseba Albizu Larrea | Soroandieta, Arantzazu auzoa 31 | Baserrian putzu septikoa jartzeko lanak | 6.908,52 € |
| 5994 | Miren Itziar Ugarte | Telletxabolak, Arantzazu auzoa 56 | HOMko Tellatxabolan putzu septikoa jartzeko lanak | 4.075,00 € |

**Gertakarien balorazioa:**

Aipatu oinarri-arau espezifikoen 4.2. artikuluak xedatukoaren arabera "*onuradunak*" izango ahalko dira, saneamendu sare orokorrera lotu gabe eta I. eta II eranskinean ezartzen diren baldintzetan dituzten putzu septikoa duten baserriak eta HOMtan dauden artzain txabolak edo putzu septiko berria jarri edo berrizteko asmoa dutenak.

Oinarri-arau espezifikoen 4.3. artikuluak xedatukoaren arabera "*dirulaguntzen zenbatekoa*" Udalak baldintza bereziak xedatutakoa betetzen duten baserriei, putzu septikoa husteko edo instalazio kostearen % 50a diruz lagunduko du.

Eskaerak aztertu ondoren eta oinarri-arau espezifikoen 4.3 artikuluak xedatukoari jarraituz, ondorengo laguntzak egokitzen dira:

| Sarrera zkia | Eskatzailea | Baserria/ Helbidea | Eskatutako laguntza<br>€-tan BG | Laguntza<br>%50 |
|---|---|---|---|---|
| 4428 | Iñigo Urkia Odriozola | Sakristauena, Araotz auzoa 7 | 9.086,47 € | 4.543,24 € |
| 5950+<br>5947 | Joseba Albizu Larrea | Soroandieta, Arantzazu auzoa 31 | 6.908,52 € | 3.454,26 € |
| 5994 | Miren Itziar Ugarte | Telletxabolak, Arantzazu auzoa 56 | 4.075,00 € | 1.048,75 € |
| | | | **Guztira** | **9.046,25 €** |

**Miren Itziar Ugarte andreak egindako eskaera, artzain txaboletako diru laguntza lerrotik aurretik ere diruz lagunduta dagoenez, gain finantziazio mugara arte laguntzen da.*

2024ko deialdirako 3.500 €-ko diru-atala dago.

Oinarri arautzaile orokorren 7. artikuluak "diru-laguntzen zenbatekoa" xedatutakoaren arabera, *deialdia ebatzi ondoren onuradunen batek laguntzari uko egiten badio edo laguntza lerro batek kreditua agortzen ez badu, eta horrek kreditua sortzea eragiten badu, kreditu hori beste onuradun bati eman dakioke (lerro berdinekoa nahiz beste lerro batekoa), beste deialdi bat egin beharrik gabe*.

**Proposamena:**

Lehenengoa.- Putzu septikoak garbitzeko eta instalatzeko 2024ko dirulaguntza deialdiaren baitan ondorengo laguntzak ematea:

| Sarrera zkia | Eskatzailea | Baserria/ Helbidea | Laguntza<br>%50 |
|---|---|---|---|
| 4428 | Iñigo Urkia Odriozola | Sakristauena, Araotz auzoa 7 | 4.543,24 € |
| 5950+<br>5947 | Joseba Albizu Larrea | Soroandieta, Arantzazu auzoa 31 | 3.454,26 € |
| 5994 | Miren Itziar Ugarte | Telletxabolak, Arantzazu auzoa 56 | 1.048,75 € |
| **9.046,25 €** | | | |

Bigarrena.- Erabaki hau interesdunari eta kontuhartzailetza Sailari jakinaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Horregatik guztiagatik, teknikariaren balorazioa eta proposamena ikusirik, nik, Izaro Elorza Arreguik, Oñatiko alkatea naizen honek, erabakitzen dut:

**Lehenengoa.-**. Putzu septikoak garbitzeko eta instalatzeko 2024ko dirulaguntza deialdiaren baitan ondorengo laguntzak ematea:

| **Sarrera zkia** | **Eskatzailea** | **Baserria/ Helbidea** | **Laguntza %50** |
|---|---|---|---|
| 4428 | Iñigo Urkia Odriozola | Sakristauena, Araotz auzoa 7 | 4.543,24 € |
| 5950+ 5947 | Joseba Albizu Larrea | Soroandieta, Arantzazu auzoa 31 | 3.454,26 € |
| 5994 | Miren Itziar Ugarte | Telletxabolak, Arantzazu auzoa 56 | 1.048,75 € |
| **9.046,25 €** | | | |

**Bigarrena**.- Erabaki hau interesdunari eta kontuhartzailetza Sailari jakinaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

**Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut.**

**Oñatin, 2025eko urtarrilaren 28a**

**Alkatea**

**Izaro Elorza Arregui**